

Kooperatibagintzaren gaineko aditu ikastaro bat abiatu da

2008/06/11

Maiatzaren 16an abiatu zen aditu ikastaro bat **kooperatibagintzaz**, Huhezi fakultateak, Lanki Institutuak eta Mondragonek sortua. Ikastaroak abendua arte iraungo du, eta bertan **27 lagun** ari dira parte hartzen, denak kooperatibistak. Kooperatibagintzan aditu tituluak bilatzen du kooperatibagintzaren biziberritzea eta transmisioa.



Helburuak

Ikastaroak honako helburuak ditu:

- Ezagutza zabala eta sakona eskaintzea Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren inguruan.
- Irakurketa gaurkotua eskaintzea egungo gizartearen gainean, kooperatibagintzaz hausnarketa egiteko abiapuntu gisa.
- Ikasleak trebatzea parte-hartze eta enpresa demokrazian, kooperatibagintzaren barne dimentsioari begira.
- Erakunde eta pertsona kooperatiboaren gaineko irakurketa egitea, lankidetzaren psikologiatik.
- Parte-hartzaileak trebatzea hezkuntza kooperatiboaren kudeaketan.
- Etorkizunera begira hausnarketa bultzatzea kooperatibagintzaren galdegai eta erronken inguruan, eta baliabideak eskaintzea aterabide posibleak marrazteko.

Moduluak

Ikastaroa sei modulutan banatuko da, sei galdera nagusiren inguruan bilbatuak.

1. Gaurko gizarte aldaketak: aldaketa aro, aro-aldaketa.
2. Arrasateko Kooperatiba Esperientzia.
3. Kooperatibagintzaren barne dimentsioa: demokrazia eta parte-hartzea.
4. Kooperatibagintzaren kanpo dimentsioa: gizarte eraldaketa eta garapen komunitarioa.
5. Lankidetzaren psikologia
6. Zelan kudeatu hezkuntza kooperatiboa.

Modulu bakoitzak 3 eta 5 aste iraungo du, gai bakoitzak behar duen sakontzearen arabera. Ikasleari, berriz, **astean 5 ordu** eskatuko zaizkio presentzia (**guztira 125 ordu presentzial**), eta **hiruzpalau ordukako lana**, astetik asterako irakurketak egiteko. Modulu bakoitzak, bestalde, **hiru osagai** uztartuko ditu: saio teoriko trinkoak, mintegiak eta zuzeneko testigantzak. Horrezaz gain, modulu bakoitzean **lan bat** eskatuko zaio ikasleari, erakusteko ulertu eta barneratu dituela oinarritzko kontzeptuak. Ikastaroaren bukaeran, ikasle bakoitzak **proiektu bat** aurkeztu beharko du.

Antolakuntza eta arduradunak

Aditu titulu hau ostiraletan emango da, 08:30etik 13:30era, Otalaran batzuetan, eta Huhezin bestetan. Ikastaroa abendua amaituko da, baina proiektuak 2009ko otsailean aurkeztuko dira.

Graduondokoaren arduradunak: **Ainara Udaondo** (Huhezi-Lanki) eta **Juan Ignazio Aizpurua** (Otalora).